

zineskola

osasun hezkuntza



GRAN TORINO

Clint Eastwood, AEB, 2008.



FITXA TEKNIKOA:

Jatorrizko izenburua: *Gran Torino*.

Urtea: 2008.

Iraupena: 119 min.

Herrialdea: AEB.

Zuzendaria: Clint Eastwood.

Gidoia: Nick Schenk. **Istoria:** Nick Schenk, Dave Johansson.

Musika: Kyle Eastwood, Michael Stevens.

Argazkia: Tom Sternl.

Aktoreak: Clint Eastwood, Christopher Carley, Bee Vang, Ahney Her, John Carroll Lynch, Cory Hardrict, Brian Haley, Geraldine Hughes, Dreama Walker, Doua Moua, Chee Thao, Scott Eastwood,

IKASLEAK

DBH • DBHO • OLH


2025 • 2026



Programa
honen ideia
eta garapena
Irudi Biziak®-enak
dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



FILMEAN ZE HAR

1. ZURE AITAK NEURE ONETIK ATERATZEN NAU BETI



ESZENA 01

MITCH KOWALSKI: Jende asko etorri da hiletaren ondoren, ezta?

WALT KOWALSKI: Bai, urdaiazpikoa daukagula entzungo zuten. Sotora noa, aulki batzuk behar ditugu eta.

MITCH: Neu joango naiz, aita.

WALT: Ez, oraintxe behar ditugu, ez datorren astean.

(Walt aulkien bila doa, eta itzultzean ...)

ASHLEY: Noiz arte geratu behar dugu? Zulo honetan ez dago estaldurarik, aspertuta nago.

MITCH: Ashley, lastana, zoaz. Lagundu aitonari aulkiekin.

ASHLEY: Nik?

KAREN KOWALSKI (Ashleyren ama): Bai, zeuk. Tira zoaz.

ASHLEY: Aitona, nahi baduzu neuk lagunduko dizut, zera aulkiekin.

WALT: Ez, azazkalak pintatu berri izango dituzu.

KARENEK MITCHI (ahapeka): Zure aitak neure onetik ateratzen nau beti.

- **ESZENA AZTERTZEN.** BIKOTEKA: Walt Kowalski bere emaztearen hiletaren arratsaldean ezagutzen dugu. Gogoratu nolakoak diren bere jarrera fisikoa, bere keinuak, bere gorputz jarrera... hiletan eta ondorengo ospakizunean etxean. Markatu hobekien deskribatzen duten adjektiboak edo esaldiak:

☐ Triste.

☐ Serio.

☐ Negarti.

☐ Urduri.

☐ Haserre.

☐ Bakarti.

☐ Besteek laguntza bilatzen du.

☐ Uzkurtuta.

☐ Lur jota.

☐ Indartsu.

☐ Lasai.

– Zer uste duzue pentsatzen eta sentitzen duela Waltek arratsalde horretan?

- Waltek erabiltzen dituen **hizkera eta esamoldeak** ere bere nortasunaren eta besteekin duen harremanaren isla dira. **1. ESZENAKO** elkarrizketa adibide ona da, baina askoz gehiago daude. Erlazionatu esaldi hauetako bakoitza dagokion pertsonaiarekin (Mitch, bere semea; aita Janovich; Thao, Ashley; biloba...), nori esaten dio:

1. Azazkalak pintatu berri izango dituzu.
2. Nire izena Kowalski jauna da. Bizitzaz ezer ez dakien 27 urteko mutil birjina zarela.
3. Amaren huts handia dugu, ezta?
4. Zenbat uretako arratoi sartzen dira ba gela batean?
5. Zure emazteak hartu ditu jada amaren bitxi guztiak.
6. Nor zara zu? Zertara zatoz? Bota, bota behingoz! Hitz egin behingoz!
7. Begirune pixka bat talo mutur, dolu eguna da eta.

- **ANALISIAREKIN JARRAITUZ.** BIKOTEKA: Hasieratik argi dago Waltek ez duela harreman oso atsegina bere familiarekin. Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?

☐ Walt iraganean ainguratuta bizi delako, emaztea faltan botatzen duelako, Koreako gerra gogoratu, eta inguruan duen oraina ez duelako batere estimatzen.

☐ Bere familiak ere ez duelako ondo tratatzen (Ashleyk galdetzen dio: *norentzat izango da auto hau, zu hiltzean?*).

☐ Bere seme-alabek bere bidea ez jarraitzeak haserretzen duelako: Fordentzat lan egin du bizitza osoan, eta bere seme-alabek auto japoniarrak saltzen dituzte.


☐ Inguruko guztiekin haserre dagoelako, eta bere familia beste bat besterik ez delako.

☐ Haserretzeak bakarrik sentitzen dela konturatzea saihesten duelako.

- **FIKZIOTIK ERREALITATERA:** BAKARKA pentsatzeko eta TALDE TXIKIETAN bateratzeko. Batzuetan, pertsona batzuekin haserretu gaitezke, baina haserretzeko benetako arrazoiak ez da haiekin gertatu zaigun zerbaitekin lotuta egoten, baizik eta beste arrazoi batzuegatik ondo ez sentitzearekin.

- Inoiz gertatu al zaizu? Lagun batekin borrokatu al zara etxetik “kargatuta” zatozelako? Edo institutuan gogaitu zaituen zerbaitegatik etxean “eztanda” egin duzu? Zer ondorio izan ditu zuretzat?
- Beste era batera jokatzeko baliagarri izan dakizukeela uste duzu? Nola?

2. ILEA MOZTEA NAHI NUKE, ASTIRIK BALDIN BADUZU



ESZENA 02

WALT: Banekien mozolo hutsa zinela. Baina ez autoak osten baino baldarragoa izango zinenik neska kontuetan, Tauki. (...). Porrot egin duzu hor egon den neskarekin. Dena den, bost axola zu bezalako tauki batek...

THAO: Ez dakizu zer diozun.


WALT: Oker zaude horizto, nik ondo dakit zer diodan. Badakit ez naizela beti oso atsegin, baina munduan izan den emakumerik onenarekin ezkondu nintzen. Ez zen erraza, baina inoizko saririk onena lortu nuen. Baina zu begira zaude eta Fu Man Chu, Bruce Lee eta Yaki Chang neska horrekin joan dira bitartean. Begiko zaitu, ez dakit zergatik, baina...

THAO: Nork?

WALT: Jogurtek! (...). Zeuri begira egon da, txepel hori.

THAO: Nor, Youa?

WALT: Bai, Jogur, bai! Neska alaia, jatorra, oso atsegin, hitz egin dugu. Eta hiru akolitoekin joaten utzi duzu, babo horrek. Eta ba al dakizu zergatik? Kakati hutsa zarelako. Bueno, joan egin behar dut, ondo izan. Maritxu hori.



ESZENA 03

WALT: Zer egin nahi duzu bizitzan, mutiko?(...) Eta ikastea pentsatu al duzu?

THAO: Bai, baina eskola garestia da.

WALT: Lana bilatu behar zenuke eta dirua irabazi.

Bizitza osoa nire lorategian egin beharrean.

THAO: Ordainduko bazenit beharbada....


WALT: Bai. Barregarria zara.

THAO: Zer lan emango didate niri?

WALT: Bai, horixe da arazoa. Inork ez zaitu hartu nahiko.

THAO: Badakit.

WALT: Txantxetan nabil, talo mutur. Lana lortuko ez duzu ba, edozein lekutan gainera (...). Eraikuntzan, ondo egingo zenuke lan eraikuntzan, baditut lagun batzuk. Baina lehenengo gertatu egin beharko zaitut, apur bat gizon egiteko... Eta Jogur andereñoari irteteko eskatu behar zenioke..



ESZENA 04

WALT: Gizonen moduan hitz egiten ikasi behar duzu. Entzun arretaz nola tratatzen dugun elkar Martin eta biok, bai? ¿Gertu zaude? Ederto, goazen ba.

(Walt eta Martinen arteko solasaldia ile-apaindegian).

WALT: Ikusi duzu? Gizonek horrelaxe hitz egiten dute.

(...) Orain irten zaitez, sartu berriro eta hitz egin Martini gizon baten moduan.

THAO: Zer dugu, italiar kaikua?

MARTIN: Ospa hemendik, limoi buru hori, berton lehertzea nahi ez baduzu! Astakirtena!

WALT: (Martini) Madarikatua, Jainko arren. Lasai Martin, lasai (Thaori) Erotu egin al zara? Zer daukazu buruan?

THAO: Zuk horixe esan diozu, gizonek horrela hitz egiten dute!

WALT: Ezin duzu gizon bat iraindu bere negozioan bertan eta ezagutu gabe. Behar ez den bat aurkitzen baduzu, gizon erretxin bat. Burua lehertuko dizu bertan.

THAO: Eta zer esan beharko nion?

MARTIN: Zer moduz, adibidez, kaixo?", edo "egun on".

WALT: Bai, sartu eta esan “ilea moztea nahi nuke, astirik baldin baduzu”.

- **ESZENA AZTERTZEN: WALT ETA THAOREN – THAO ETA WALTEN ARTEKO HARREMANA.** Walt adi egon da Thao eta Youaren arteko begiradei (**2. AGERRALDIA**). Thao Waltentzako lanean hasi eta elkar hobeto ezagutu ahala, Waltek mutilarekiko interes handiagoa agertzen du.

- Zure ustez, Walt zergatik saiatzen da Thaorekin? Aukeratu erantzun hauen artean:
 1. ☐ Waltek ez du Thaori laguntzeko inolako interesik. Inor baino argiago dela besterik ez du erakutsi nahi.
 2. ☐ Pena ematen dio aitarik ez duelako eta gaztea “adoptatzea” erabakiko du.
 3. ☐ Bere gaztaroa gogorarazten dio Thaok.
 4. ☐ Waltek beti laguntzen die ahulei, hori baita armadan ikasi zuena.
 5. ☐ Beste arrazoi batzurengatik. Azaldu 2 lerrotan zein.
- Zure ustez, Thaoren zein **balore, jarrera edo portaera** gustatzen zaizkio Walti? Ondoren, jarri gurutze bat zeuretzat nahi zenituzkeen Thaoren jarrera hauen ondoan:

	WALT GUSTATZEN ZAIZKIO			HORRELAKOA IZATEA GUSTATUKO LITZAIDAKE	
	BAI	BATZUETAN	EZ	BAI	EZ
Auzokoei laguntzen die.					
Konpromisoak betetzen ditu (esaterako, Waltekin daukan lana).					
Irakurtzea gustatzen zaio.					
Gogoko du ikastea.					
Etxeko lanetan laguntzen du.					
Zaila izanda ere, ahalegindu egiten da (esaterako, lanean jarraitzen du erupiean ere).					

- **ANALISIAREKIN JARRAITUZ.** Orain TALDE TXIKIETAN. Agerraldi hauetako elkarrizketak arretaz irakurtzen badizutuzue, baliagarriak izango zazikizue **Walt eta Thaoren arteko harremanaren prozesua** aztertzeko.

- Aukeratu ondoko puntu hauen artean, zuen ustez, harreman horretan aipagarrien diren aldaketak islatzen dituztenak, eta azpimarratu horretarako oinarritzat hartzen dituzuen elkarrizketetako esaldiak:

1. Walt gero eta gehiago inplikutzen da Thaorekin.
2. Gero eta afektu handiagoa sumatzen da bien artean.
3. Waltek onartzen duenez, Thao “hezten” ari da.
4. Thaok gero eta gehiago egiten dio aurre Walti.
5. Waltek errespetu handiagoz tratatzen du Thao.


- Nola aldatzen da bata besteari buruz daukan iritzia?

3. ESZENAN, WALTEK THAORI BURUZ DAUKAN IRITZIA...
5. ESZENAN WALTEK THAORI BURUZ DAUKAN IRITZIA...

3. ESZENAN, THAOK WALT BURUZ DAUKAN IRITZIA...
5. ESZENAN THAOK WALT BURUZ DAUKAN IRITZIA...

- Zein dira zure ustez, bata bestearikiko garatzen dituen sentimenduak?

- WALTEK THAORI BURUZ DAUZKAN SENTIMENDUAK...
- THAOK WALT BURUZ DAUZKAN SENTIMENDUAK...



- Ikasle-irakasle edo areago, aita-semearen arteko bezalako harremana sortuko da haien artean. Film osoa erreferentziatatzat harturik, zein dira zure ustez, Waltek Thaori Transmittzen dizkion 3 “ikasbiderik” garrantzitsuenak?
- **Ez da norabide bakar bateko harremanik**, beraz, Tahok ere ekarpen handia egiten dio Walti. Zein da zure ustez garrantzitsuenak?

- **FIKZOTIK ERREALITERA:** Thaoren aita baino aitona izateko adinean dago Walt. Desberdina al da gazte batek aita eta ama edo aitona eta amonarekin daukan harremana? BAKARKA, ondoren TALDE GUZTIAREKIN partekatzeke. Hausnartu zeure esperientziaz, zeure etxeko helduekin daukazun harremanetaz:
 - Zein dira aita edo amarekin partekatzen dituzun jarduerak (edo haien adineko beste helduekin)? Eta zure aitona-amonekin?
 - Estua ala hotza da haiekin daukazun harremana?
 - Zer da haiengandik ikasi duzuna?
- **TALDE HANDIAN EZTABAIDATZEKO.** Irakurri ondoko esaldiak eta eta hitz EGIZUE DENON ARTEAN haiei buruz daukazuen iritziaz:
 - ☐ Zaharrek dena sinisten dute, helduek susmoak egiten dituzte, eta gazteek berriz, dena dakite.
 - ☐ Zaharrak ez dira gazteetaz fidatzen, haiek ere gazteak izan direlako.
 - ☐ Gizakiak hezgarriak izateari uzten dionean hasten da zahartzen.
 - ☐ Amonak gozotasunez hornitutako amak dira.
 - ☐ Aiton-amonak etxean sartzen direnean, leihotik egiten du ihes diziplinak.
 - ☐ Zahartzea mendi handi bat eskalatzea bezalakoa da: igo ahala indarrak gero eta ahulagoak dira, baina, begirada askeagoa eta ikusmena zabalako eta lasaiagoa.
 - ☐ Egur zaharra erretzeko, ardo ondua edateko, lagun zaharrak konfiatzeko, eta betiko autoreak irakurtzeko.
 - ☐ Gaurko gazteak tirano hutsak dira. Gurasoen kontrakoa diote, haien janaria irensten dute, eta ez diote inolako errespeturik maisuei. (Sokrates, 470-399 KA).
 - ☐ Aztertu iragana etorkizuna iragarri nahi baduzu.
- Ondoren, GELA OSOA, BI TALDETAN BANATUKO DA AUSAZ. Talde bakoitzak ondoko bi esaldietako bat defendatuko du, horretarako behar dituen argudio guztiak erabiliz eta hauen bitartez, beste taldeko guztiak konbentzitzen saiatu beharko dira:
 - 1. ESALDIA: Adinekoek ekarpen handia egin diezaioke gure gizarte eta eguneroko bizitzari, esaterako ...
 - 2. ESALDIA: Adinekoek egina dute haien bizitza eta oso ekarpen eskasa egin dezakete, zeren ...

3. NI GUSTURA NAGO: NESKA POLITAK, JATEKO EDERRA... ETA THAOK EZ NAU NEKARAZI GAINERA



ESZENA

05

Waltek Lor familia auzora iristen ikusten du.

WALT: Zenbat uretako arratoi sartzen dira ba, gela batean? (...) Basati madarikatuak!



ESZENA

06

SUE: Hmong esan nahi duzu. Hmong gara, ez amon.

WALT: Berdin dio. Non deabru dago Amon edo Amon dena delakoa?

SUE: Hara, jakinmina baduzu behintzat! Hmong ez da leku bat, etnia bat da. Gehienak Laosen, Tailandian eta Txinan bizi dira.

WALT: Zegatik etorri zineten nire auzora? Zergatik ez zaudete han?

SUE: Ba, Vietnamekoagatik. Zuekin borrokatu ginen eta joan zinetenean, komunistak hmongak hiltzen hasi ziren. Horregatik etorri ginen.



ESZENA 07

WALT: Nola nahi duzue txakurra... bueno, zera...
 hamburgesa?
 THAO: Hori txistea!
 SUE: Esan nizun, katuak bakarrik jaten ditugu.
 WALT: Bai.
 SUE: O, ez zaitut inoiz ikusi honen pozik!
 WALT: Ni gustura nago: neska politak, jateko ederra...
 Eta Thaok ez nau nekarazi gainera.
 SUE: Primeran pasatzen ari zara, e?

- **ESZENAK ANALIZATZEN: GAUZAK KOMUNEAN .** TALDE TXIKIETAN: Waltek ez dio Lor familiari oso harrera atsegina egiten. Auzora iristen direnetik, era honetako kalifikatiboak erabiltzen ditu: *uretako arratoi, talo aurpegi, horiak, txinatarrak...*
 - Walten jarrera arrazista dela uste duzu?
 - ☐ Bai. Etnia eta kultura desberdinetakoak direlako baztertzten ditu Lortarrak. Lagunekin ere txiste arrazistak egiten ditu tabernan.
 - ☐ Ez. Bere etniakoak deskalifikatzen dituen bezala deskalifikatzen du Lor familia Hmong izateagatik. Orokorrean, guztiekin da ezatsegina.
 - ☐ Bai. Etnia desberdinetakoekin ezatsegina den arren, are gehiago Lor familiarekin.
- Gogoratu ahalik eta zehaztasun handienez noiz eta zein egoeretan ematen ziren **5. 6. ETA 7. ESZENAK** biltzen dituzten elkarrizketak. TALDE TXIKIETAN BILDURIK, zuen ustez, **Walt eta Thao eta Sueren familiaren arteko harremanean** ematen den **aldaketa** argitzen dituzten esaldiak azpimarratu.
 - Azaldu zuen hitzekin prozesu hau:
 1. HASIERA BATEAN, WALTERK LOR FAMILIAREKIKO DAUKAN JARRERA...
 2. ELKAR EZAGUTU AHALA, WALTEN JARRERA...
 3. FILMAREN AMAIERAN WALT ETA LOR FAMILIAREN ARTEKO HARREMANA...
 - Zuen ustez, zer gertatu da bien arteko **harremana estutzeko**? Jarri gurutze bat ados zauden erantzunen ondoan:
 - ☐ Janaria eramaten diote, Walti jatea gustatzen zaio eta oso jarrera atsegina dauka haiekin opariak ekartzen dizkioten bitartean.
 - ☐ Waltek ez zekien Hmong etniari buruzko ezer. Hari buruzko informazioa daukanean, haien ohitura eta tradizioei buruzko interesa agertzen du.
 - ☐ Gero eta hobeto ezagutzen ditu Sue, Thao, Youa, Vu (Sue eta Thaoren ama), amona... eta gero eta gehiago preziatzen ditu.
 - ☐ Waltek, auzoko beltz edo latinoekin baino, nahiago du txinatarrekin harremana izan.
 - ☐ Waltek berataz arduratzen direla sentitzen du: bere osasuna, iragana, zaletasunak...
 - **“Gauza gehiagok lotzen naute txinatar havei, neure gaizki heziketako familiari baino.”** Walt, Lor familiarekin “familian bezala” sentitzen dela uste duzu? Azaldu zure erantzuna.



- **ANALISIAREKIN JARRAITUZ:** BIKOTEKA, hurrengo galderen inguruan hausnartu eta ondoren BATERATZE-LANA egin. **Thaok** indarkeria handiko egoera bizi du bere etxekoan artean: Spider deitzen duten bere lehengusua eta honen taldeak **presiopean** daukate. Hasiera batean, haiekin bat egiteko eskatuko diote; gero, indarrez lortzen saiatuko dira eta Thaok taldekide izateari uko egiten dionean, oso gogor zigortuko dute.

– Hasiera batean, Walten Gran Torino-aren lapurretan parte hartzea onartuko du Thaok. Zergatik onartzen duela uste duzu?

– Geroago, zergatik uste duzu asmoz aldatu eta taldekide izateari uko egiten diola?

– Spider eta honen bandak, nola uste duzu baloratzen dutela Thao?

- ☐ Spider oso kezkatuta dago bere lehengusu Thaorekin. Beste talde batzuegandik babesteko gertu ez badauka arriskuan egon daitekeela uste du. Horregatik presionatzen du.
- ☐ Denak hmong izanik, ez dute ulertzen Thaok haiekin zergatik egon nahi ez duen.
- ☐ Egia esan, haiek ez dute interes eta zaletasunak dituen pertsona indibidualtzat hartzen Thao, etnia bereko beste kide bat bezala baizik.
- ☐ Defendatu eta mexikar taldearen hatzaparretatik salbatzen dute. Thao zorretan dago haiekin eta leialtasunarekin ordaindu beharko die.

– Zuen ustez, zergatik saiatzen dira haren partaidetza lortzen? Ondoko esaldi haiek horretaz hausnartzen lagunduko dizute:

SPIDER: *Norbaiten babesa behar duzu eta horretarako dago zure lehengusu zaharrena.*

SMOKIE: *Hara motel, nik badakit zer den hori, bizi izan baitut. Lehen denek zebiltzan ni jo nahian, eta hara orain, inor ere ez da ni izorratzen ausartzen. Zatoz gurekin.*

SPIDER: *Zer dela eta utzi behar nauzu ergel baten antzera?*

- ☐ Ahalik eta gehien izan nahi dute, auzoko gainontzeko taldeak baino indartsuago izateko.
- ☐ Hmong guztiak elkarturik egon eta berdina jokatu behar dutela uste dutelako. Inor ere ezin da desberdina izan.
- ☐ Thaok taldeko kide izan nahi ezean, Spider-ek taldearen aurrean huts egin duela uste duelako.
- ☐ Taldeetik kanpo geratzean, Thaok kritikatu egiten dituela uste du Spider-ek; taldekide izateari uko egitean, gainontzekoen aurrean barregarri uzten duela uste du.
- ☐ Beste arrazoi batzuegatik. Esan zein.



- **FIKZOTIK ERREALITERA. PAREKOEN TALDEA:** Lehenengo BAKARKA: Zure laguntaldeak presionatu al zaitu inoiz egin nahi ez nuen zerbait egiteko?:

– Nola sentitu zinen? Zer egin zenuen?

– Presioa onartu edo ez onartzea erabaki baduzu, zer irabazi eta galdu duzu?


- Bigarrenik, gogoratu zurearengandik desberdina den kultura, herrialde edota etniaren bateko norbait ezagutu duzun egoeraren bat.

- Nola sortu zen zuen arteko harremana? Zuk zer egin zenuen?
- Desberdintasun horrek izan al zuen eraginik zure jarreraren? Nola?
- Zure kultura bereko lagunekin alderatuz, zuen arteko harremana desberdina dela esan dezakezu?
- Lagun egin zaretenez geroztik, ba al du nolabaiteko eraginik zuen arteko kultura edota etnia desberdintasunak? Edo ez al duzue gogoratu ere egiten?

- Amaitzeko, erantzunak GUZION ARTEAN partekatu.



4. AIZU, ASKO ALDATU ZARA. HARRO NAGO NIRE LAGUNA ZARELAKO, BIZITZA GUZTIA DUZU AURREAN, NIK EZ



ESZENA 08

WALT: Badakizu nolakoa den gizon bat hiltzea? Asma dezakezun sentipenik txarrena da! Gauza bakar bat dago txarragoa, adorearen domina hartzea, errenditu nahi zuen mutiko bat hiltzeagatik. Bai, mutiko korear beldurtu bat, zure antzekoa. Burua lehertu nion oraintxe eskuetan izan duzun armarekin. Egunero-egunero daukat nire buruan, zuk ez duzu horrelakorik behar. Nik odola daukat eskuetan, zikinduta dauzkat, horrexegatik joango naiz bakar-bakarrik.


THAO: Walt, zurekin joango naiz! Atera hemendik!

WALT: Aizu, asko aldatu zara. Harro nago nire laguna zarelako, bizitza guztia duzu aurrean, nik ez. Eta hasitakoa amaitu behar dut. Beti amaitu dut eta bakar-bakarrik egingo dut.

- **8. ESZENA AZTERTUZ:** GUZTION ARTEAN: Hasiera batean aita Janovich-i eta gero Thaori, Sue eraso zuen taldeko kideak hiltzea pentsaturik daukala sinestaraziko die Waltek. Zergatik jokutzen ote du horrela?
- TALDE HANDIAN hausnartzen jarraitzen dugu: Hmong xamanak hari buruzko iragarpen bat egin zuen, honakoa irakurri zuen haren ariman: “Ez zaitu inork errespetatzen, ez dizute begiratu ere egin nahi. Oso aspergarria da zure bizia, eta horrek kezkatu egiten zaitu. Akats bat egin zenuen iraganean, harrotzen ez zaituen akatsa, beraz, ez zara zoriontsu, ez duzu bakerik”. Eman dezagun xamanak “igarri” egin zuela eta elkarriketa honetan Waltek Thaori kontatzen dionak horrekin zerikusia daukala.
 - Zein dela uste duzu *iraganeko akats hori*?
 - Nola lotu daiteke gertakari hau Lor familiarengatik bizia sakrifikatzeko hartu duen erabakiarekin?

- **ONDORIO GISA:** Bere azken hitzak, domina, txakurra eta bere Gran Torino utziko dizkio Waltek Thaori. Elementu guzti hauek sinbolotzat harturik;

1. Lehenengo, IDATZI BIKOTEKA, zein den zuen ustez Thaori utzi nahi zion mezua.
2. Ondoren, KOMUNeko ZERREDA bat egin bikote guztiok idatzi dituzuen mezuekin.
3. Amaitzeko, EZTABAIDATU TALDE HANDIAN BILDURIK: mezu horiek baliagarriak dira zuetako bakoitzarentzako?



AMAIERAKO ARIKETA

- Materialaren gai nagusiak landu ondoren (**1. SENTIMENDUAK ETA EMOZIOAK ONDO BIDERATZEA**, **2. BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANAK**, **3. ADISKIDETASUNA (ELKARREN EZAGUTZA ETA ERRESPECTUA)** eta **4. HAZKUNDE POSITIBORAKO LAGUNTZAK**), animatzen zaituztegu lehenik TALDE TXIKIETAN lana ixtera, gai bakoitzaren hausnarketak birbilduz, ondoren TALDE HANDIAN azaltzeko.